

Elkarte eta  
migratzaileentzako  
informazio-orria

EUSKADI  
2026



EZOHIKO  
ERREGULARIZAZIOA

EGUNERATUTA

#EUSKADIBERRIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ONGIZATE, GAZTERIA ETA  
ERRONKA DEMOGRAFIKOAREN SAILA

DEPARTAMENTO DE BIENESTAR,  
JUVENTUD Y RETO DEMOGRÁFICO



aholku-sarea

Atzeritartasunaren arloko Arreta Juridikorako Euskal Sarea  
Red Vasca de Atención Jurídica en materia de Extranjería



## ZER DA ERREGULARIZAZIO HAU?

Salbuespenezko eta aldi baterako aukera bat da, **Euskadin bizi diren atzerritarrek bizileku eta lan baimena** lortu ahal izan dezaten.

- ✔ Existitzen den errealitate bat aitortzen du.
- ✔ Segurtasun juridikoa ematen du.
- ✔ Estatu osoan legez lan egiteko aukera ematen du.



## NORK ESKA DEZAKE?

Ezohiko erregularizazioa eskuratu ahal izango dute bi egoera hauetako batean dauden pertsonak:

1. Nazioarteko babesaren eskatzailea izatea 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen
2. Administrazio-egoera irregularrean egotea eta 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen iritsi izana.



## ERREGULARIZATZEKO BI AUKERETARAKO BETEKIZUNAK

### BALDINTZA OROKORRAK

- > Adinez nagusia izatea eta egonaldi- edo bizileku-baimen baten titularra ez izatea
- > Baimena emateko, luzatzeko, berritzeko edo aldatzeko prozeduretan interesdun ez izatea.
- > Estatuan 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen egon izana.
- > Eskabidea egiten den unean gutxienez 5 hilabetez jarraian egon izana egiaztatzea.
- > Espainian edo azken 5 urteetan bizi izan den herrialdeetan zigor aurrekaririk ez izatea.

- > Ordena publikorako, segurtasun publikorako edo osasun publikorako mehatxua ez izatea.
- > Baztergarri gisa ez agertzea horretarako hitzarmena duten herrialdeetako lurralde-eremuan.
- > Itzulerarik gabeko konpromisoaren epean ez egotea.
- > Administrazio-tasa ordaintzea

## 1

### **NAZIOARTEKO BABESA ESKATZEN DUTENEK BETE BEHARREKO BALDINTZA ESPEZIFIKOAK**

---

Sustraitze-arrazoiak direla-eta salbuespenezko arrazoiak gertatzen direnean, aldi baterako bizileku-baimena eskatu ahal izango dute:

- > 2026ko urtarrilaren 1a baino lehen nazioarteko babes-eskaera bat erregistratu edo formalizatu duten atzerritarrak. Eskatzaile-izaera borondatea adierazten den unean hartzen da..
- > Baldintza orokorrak betetzea

## 2

### **ADMINISTRAZIO-EGOERA IRREGULARREAN DAUDEN PERTSONENTZAKO BETEKIZUN ESPEZIFIKOAK**

---

Ezohiko sustraitzearen ondoriozko salbuespenezko arrazoiengatik aldi baterako bizileku-baimena eskatu ahal izango dute:

Baldintza orokorrez gain, honako hauetako BAT GUTXIENEZ betetzen dutenez:

- > Lan egin izana edo lan egiteko asmoa egiaztatzea (besteren kontura edo norberaren kontura)
- > Familia-unitatearekin egotea (seme-alaba adingabeak, desgaitasuna duten edo beren kabuz moldatzea eragozten dien osasun-egoera duten seme-alaba adindunak, edo haiekin bizi diren lehen mailako aurreko ahaideak)
- > Gizarte-laguntzaren arloan eskumena duten erakundeek edo Atzerritarren Laguntzaileen Erregistro Elektronikoan inskribatutako hirugarren sektoreko erakundeek egiaztatutako kalteberatasun-egoeran egotea (ziurtagiri eredu espezifikoa)



## ZER GERTATZEN DA FAMILIAREKIN?

- Bizikidetza-unitatea osatzen duten lehen mailako aurreko ahaideek, ezkontideak edo erregistratutako bikotekideak baimena eskatu ahal izango dute aldi berean.
- Seme-alaba adingabeak (edo adin nagusiko desgaituak):
  1. Gurasoek ezohiko erregularizazioa lortu behar badute, aldi berean eskatu ahal izango dute beren seme-alaben bizilekua, betiere eskaera egin baino 5 hilabete lehenago etenik gabe egon direla egiaztatzen badute.
  2. Gurasoak dagoeneko aldi baterako bizileku-baimenaren titularrak badira, eskaera Atzeritarren Bulego eskudunari zuzenduko zaio, ohiko bideetatik.

Kasu bietan, epeei, baliabide ekonomikoei eta ostatuari buruzko betekizunak ez dira bete beharko.



## PROZEDURA URRATSEZ URRATS

1

### DOKUMENTAZIOA PRESTATZEA

- > Formulario ofiziala: <https://www.inclusion.gob.es/ca/regularizacion>
- > Pasaporte, bidaia-titulua edo inskripzio-zedula (indarrean edo iraungita)
- > Estatuan egotearen probak (erroldatzea, txostenak, hitzorduak, ziurtagiriak, etab.)
- > Azken bost urteetan bizilekua izan duten herrialdeetako aurrekari penalen ziurtagiria
- > Lana, familia, kalteberatasuna edo, hala badagokio, nazioarteko babesa eskatzen dela egiaztatzen duten dokumentuak.



**Garrantzitsua:** Administrazioaren esku dagoen dokumentaziorik ez da eskatuko.

2

## ESKABIDEA AURKEZTEA

- > Bide telematikoa: Merkurio plataforma: <https://mercurio.delegaciondelgobierno.gob.es/mercurio/>
- > Aurrez aurre: Gizarte Segurantzako bulego gaituak eta posta-bulego jakin batzuk. (Aurretiko hitzordua eskatu beharko da), hemen: <https://www.inclusion.gob.es/regularizacion/#solicita-cita>

Eskabideak lehenetsunez izapidetuko dira, eta 2026ko ekainaren 30ean amaituko da epea.

3

## BEHIN-BEHINEKO BAIMENA

Prozeduraren hasieraren jakinarazpenarekin:

- > Legez bizi daiteke
- > Besteren kontura edo norberaren kontura lan egin daiteke edozein okupazio edo jarduera-sektoretan

*Eskaera aurkeztu izanaren egiaztatzea ez da prozeduraren hasieraren jakinarazpena, geroago jasoko baita.*

4

## EBAZPENA

- > Aldekoa bada: urtebetez lan egiteko gaitzen duen bizileku-baimena emango da. Seme-alaben kasuan, baimenaren iraupena 5 urtekoa izango da.
- > Kontrakoa bada: behin-behineko baimena amaituko da.

5

## ATZERRITARRAREN NORTASUN-TXARTELA (ANT)

Emakida gauzatu eta hilabeteko epean:

- > ANT eskatzea dagokion Polizia Nazionalaren komisarian. Pertsonak nazioarteko babes eskatzen badu, eskaeran edo errekurtsioan atzera egin beharko du, eta frogagiria aurkeztu.



## FUNTSEZKO GALDERAK



### Lan egin dezaket ebazpena espero dudan bitartean?

Bai, prozedura hasteko komunikazioa jasotzen denetik.

### Erregularizazio hau automatikoa da?

Ez, eskabidea aurkeztu behar da eta baldintzak bete.

1. Telematikoki aurkezteko, ziurtagiri digitala behar da
2. Aurrez aurre aurkezteko, hitzordua behar da: <https://www.inclusion.gob.es/regularizacion> #solicita-cita/tel. 060

### Urtearen buruan, zer gertatzen da?

Atzerritarren Erregelamenduaren ohiko bideetara igaro ahal izango da: baimena aldatuz edo luzatuz.

### Nor EZIN da erregularizazio honi atxikitu?

- > Ukrainatik datozen aldi baterako babes-baimenen titularrak.
- > Aberrigabeak.

### Eta, sustraitzea eskatu badut?

Errotze-eskaera bat duten pertsonak, EZ dute beste eskaera bat egin, baldin eta eskaera hori 2025eko maiatzaren 20aren ondoren egin bazen eta dokumentu honetan adierazitako baldintza orokorrak betetzen badituzte.

### Gauza bera al dira kalteberatasun-txostena eta integrazio-txostena?

Ez, kalteberatasun-txostena ez du Eusko Jaurlaritzak ematen. Txosten hori Gizarte Zerbitzuek eta Entitate laguntzaileek luzatzen dute.

# FUNTSEZKO MEZUA

**Erregularizazio hori aukera paregabea da:**

- > Epeak itxita ditu
- > Eskubide eta betebeharrak aitortzen ditu
- > Prestakuntza jasotzeko, bizitzeko eta duintasunez bizitzeko eta lan egiteko aukera ematen du

---

**Informatu, aholkularitza jaso eta ez zaitez kanpoan geratu.**

## Aholku Sarea

Atzerriartasunaren arloko Arreta Juridikorako Euskal Sarea



Dokumentu hau informatiboa da.  
Kasu jakin batzuetarako, Aholku Sareak eskaintzen duen zerbitzura jotzea gomendatzen da

---

EUSKADI  
**2026**



**EZOHIKO  
ERREGULARIZAZIOA  
ATZERRITARRENTZAT**

---